

DURANGO KIROLAKen kidea zarenez, dei egiten dizut **Udaletxeko 2. Pisua, Multimedia aretoan** egingo den bilerara, datorren **Asteazkenean urtarrilaren 15ean, 17:00etan** lehenengo deialdian eta, hala badagokio, ordubete gerago, adierazitako orduan gehiengorik ez da goelako (*Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Araudiararen 14.1 artikulua*).

GAI ZERRENDA

1. Bidezkoa balitz, aurreko akta-ziriborroen onartzea. (2024-11-13),
2. Presidentearen zenbait ebazpenei buruzko kontu ematea.
3. Kudeaketa txostena (abendua).
4. 59/2023/ID/KN kirol zerbitzuen kontratuaren luzapenaren onarpena.
5. Kontseilu Errektoreak onartutako Ohiko Bilkuren aldizkakotasuna aldatzeko proposamena: *orokorrean, Kontseilu Errektorearen ohiko bilerak hilean behin izango dira, Udaleko Multimedia aretoan, asteazkenetan arratsaldeko 17:00etan eta beti ere, Udako Osoko Bilkuraren egunaren aurreko bi aste-tan.*
6. Interesesko gaien kontu ematea.
7. Eskariak eta galderak.

Se le convoca a Vd., como miembro del Consejo Rector de **DURANGO KIROLAK**, a la reunión que se celebrará en la **Sala Multimedia, 2º piso del Ayuntamiento**, el próximo **Miércoles**, día **15 de enero**, a las **17:00** horas en primera convocatoria y en segunda, si hubiera lugar, una hora después, al no concurrir mayoría a la hora señalada. (*Art. 14.1 del Reglamento de Organizaciones, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales*).

ORDEN DEL DÍA

1. Aprobación, si procede, del borrador de actas anteriores. (13-11-2024).
2. Dación de cuentas de varias resoluciones del Presidente.
3. Informe de gestión (diciembre).
4. Aprobación de la prórroga del contrato de servicios deportivos 59/2023/ID/KN.
5. Propuesta de modificación del Acuerdo del Consejo Rector, referido a la periodicidad de las sesiones ordinarias: *con carácter general, las reuniones ordinarias del Consejo Rector, tendrán lugar una vez al mes, los miércoles a las 17:00 horas, en la Sala Multimedia del Ayuntamiento y, en todo caso, durante las dos semanas anteriores al día del Pleno Municipal.*
6. Dación de cuentas de asuntos de interés.
7. Ruegos y preguntas.

Idazkaria / La Secretaria

Durango, 10 de enero de 2025
Iker Txertudi Gaztelu
Presidentea / Presidente

Elektronikoki izenpeturiko agiria
Documento firmado electrónicamente





2025-01-15

2025eko URTARRILAREN 15en AKTA / JUNTA del 15 de ENERO de 2025

Presidentea / Presidente

Don Iker Txertudi Gaztelu Jauna (EAJ-PNV).

Batzarkideak / Asistentes

Doña Mireia Elkoriribe Zenikaonandia Andrea (EAJ-PNV).

Don Asier Perugorria García Jauna (EAJ-PNV).

Don Iker Urkiza Quilez Jauna (EH Bildu-Durango).

Doña Ima Garrastatxu Urbaneja Andrea (EH Bildu Durango).

Doña Jesica Ruiz Pérez Andrea (DES-SVD).

Don Jorge Varela Dordio Jauna (HE-ID).

Don Carlos David García Fernández Jauna (PP).

Presidente berak gonbidatuak / Invitados/as a instancias del Presidente

Don Asier Bikandi Elorriaga Jauna (Durangoko Udal-Erakunde Autonomoen Gerentea).

Idazkaria / Secretaria

Doña María Elexpe Arroyo Andrea.

Tokia: Udaletxeko 2. Solairuko batzar gela.

Izaera: Ohikoa.

Hasiera ordua: 16:00

Amaiera ordua: 16:19

Lugar: Sala de reuniones, 2 planta del Ayto.

Naturaleza: Ordinaria.

Hora de inicio: 16:00

Hora de finalización: 16:19

Batzordeko Presidenteak lehen deialdian batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntuak aztertu dia:

Abierta la sesión por el Presidente de la Comisión en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del día y que son los siguientes:



2025-01-15

01. Bidezkoa balitz, aurreko akta-ziriborroen onartzea. (2024-11-13).

01. Aprobación, si procede, del borrador de actas anteriores. (13-11-2024).

Irakurri ondoren, aho batez onartu da.

Una vez leída, se aprueba por unanimidad.

02. Presidentearen zenbait ebazpenei buruzko kontu ematea.

02. Dación de cuentas de varias resoluciones del Presidente.

✓ 2024-12-3ko ebazpena. **END 02/24** espedientea onartzea, xehetasunaren arabera.

✓ Resolución de fecha 03-12-2024. Aprobar el expediente **END 02/24**, según detalle.

✓ 2024-12-10eko ebazpena. **Broker kirol, S.L. (B9576499)**, enpresaren kontratazioa baimentzea, xehetasunaren arabera.

✓ Resolución de fecha 10-12-2024. Adjudicar la contratación de la empresa **Broker kirol, S.L. (B9576499)**, según detalle.

✓ 2024-12-10eko ebazpena. **Evolur soluciones informáticas, S.L.U. (B95890836)**, enpresaren kontratazioa baimentzea, xehetasunaren arabera.

✓ Resolución de fecha 10-12-2024. Adjudicar la contratación de la empresa **Evolur soluciones informáticas, S.L.U. (B95890836)**, según detalle.

✓ 2024-12-10eko ebazpena. **Exper pool ibérica, S.L. (B97394381)**, enpresaren kontratazioa baimentzea, xehetasunaren arabera.

✓ Resolución de fecha 10-12-2024. Adjudicar la contratación de la empresa **Exper pool ibérica, S.L. (B97394381)**, según detalle.

✓ 2024-12-10eko ebazpena. **Santiago Puerto Sánchez y César Puerto Sánchez (E95157111)**, enpresaren kontratazioa baimentzea, xehetasunaren arabera.

✓ Resolución de fecha 10-12-2024. Adjudicar la contratación de la empresa **Santiago Puerto Sánchez y César Puerto Sánchez (E95157111)**, según detalle.

✓ 2024-12-11ko ebazpena. **Kontabilitate-eragiketak onartzea (AD /; 22103 ekonomikoa)**, xehetasunen arabera.

✓ Resolución de fecha 11-12-2024. Aprobar las **operaciones contables (AD/; económico 22103)**, según detalle.

✓ 2024-12-11ko ebazpena. **Kontabilitate-eragiketa onartzea (AD /; 22101 ekonomikoa)**, xehetasunen arabera.

✓ Resolución de fecha 11-12-2024. Aprobar la **operación contable (AD/; económico 22101)**, según detalle.

2025-01-15

- ✓ 2024-12-11ko ebazpena. **Zehapena ezartzea eta jakinaraztea**, xehetasunen arabera.
- ✓ 2024-12-17ko ebazpena. Kutxabank-i egindako **ordainketa** onartzea eta ordaintzea, xehetasunaren arabera.
- ✓ 2024-12-23ko ebazpena. **09/2024/MC aurrekontu-aldaketa** onartzea, xehetasunaren arabera.
- ✓ 2024-12-26ko ebazpena. **Abenduko nominaren ordainketa** baimentzea, xehetasunaren arabera.
- ✓ 2024-12-26ko ebazpena. **15/24 fakturak erlazioa** ordainketa baimentzea, xehetasunaren arabera.
- ✓ 2024-12-26ko ebazpena. **Gizarte aseguruaren gastua** onartzea eta ordainketa agintzea, xehetasunaren arabera.
- ✓ 2024-11-04ko ebazpena. **2024ko urtariletik irailera bitarteko atzerapenen nomina** ordaintzeko baimena ematea, xehetasunaren arabera.
- ✓ 2025-01-03ko ebazpena. **Baiko kirola, S.L. (B95638763)**, enpresaren kontratazioa baimentzea, xehetasunaren arabera.
- ✓ 2025-01-03ko ebazpena. **Fit learning systems, S.L. (B9598885)**, enpresaren kontratazioa baimentzea, xehetasunaren arabera.
- ✓ Resolución de fecha 13-12-2024. **Imponer y comunicar la sanción**, según detalle.
- ✓ Resolución de fecha 17-12-2024. Aprobar y hacer efectivo el **pago** a Kutxabank, según detalle.
- ✓ Resolución de fecha 23-12-2024. Aprobar la **modificación de crédito 09/2024/MC**, según detalle.
- ✓ Resolución de fecha 26-12-2024. Autorizar el pago de la **nómina de diciembre**, según detalle.
- ✓ Resolución de fecha 26-12-2024. Autorizar el pago de la **relación de facturas 15/24**, según detalle.
- ✓ Resolución de fecha 26-12-2024. Aprobar el gasto y ordenar el **abono de seguros sociales**, según detalle.
- ✓ Resolución de fecha 04-11-2024. Autorizar el pago de la **nómina de atrasos de enero a septiembre de 2024**, según detalle.
- ✓ Resolución de fecha 03-01-2025. Adjudicar la contratación de la empresa **Baiko kirola, S.L. (B95638763)**, según detalle.
- ✓ Resolución de fecha 03-01-2025. Adjudicar la contratación de la empresa **Fit learning systems, S.L. (B9598885)**, según detalle.



2025-01-15

✓ 2025-01-03ko ebazpena. **Fit learning systems, S.L. (B9598885)**, enpresaren kontratazioa baimentzea, xehetasunaren arabera.

✓ 2025-01-07ko ebazpena. Gastua onartzea eta **San Fausto Gizarte Zentroari** zor zaion zenbatekoa ordaintzea, xehetasunen arabera.

✓ Resolución de fecha 03-01-2025. Adjudicar la contratación de la empresa **Fit learning systems, S.L. (B9598885)**, según detalle.

✓ Resolución de fecha 07-01-2025. Aprobar el gasto y ordenar el **abono de la cantidad adeudada al Centro social San Fausto**, según detalle.

03. Kudeaketa txostena (Abendua).

Igotzen jarraitzen dugu. Zerbitzu berriak sartzen ari dira, eta enpresa alternatiba berriak eskaintzen saiatzen ari da. Fitness aretoa, beti bezala, oso datu onekin, rokodromoa bezalaxe, egindako bultzadaren ondoren. Eskaintza hobetzen eta herritarren beharren arabera egokitzen jarraitzen dugu. (Bikandi jauna).

Urkiza jaunak federatuen kopuruak gora egin duela ikusi du.

Bikandi jaunak Inza jaunarekin kontsultatuko du.

Abanzabalegi andreak gaineratu du gauza bera gertatu zela udako abonuen datuekin, eta oraindik argitu gabe dagoela.

Txertudi jaunak eta Elkoroiribe andreak adierazi dute mezu elektronikoko bat bidali zutela azken horrekin.

Eskolara itzuli ondoren, zein da rokodromoko ikastaroen egoera? (Abanzabalegi andrea). Bikandi jaunak azaldu dio enpresak kudeatzen dituela normalean eskaintzen diren ikastaroak (Lanbide, Maristas, etab.). Eskolekin elkartzeko dirua aldezka, eta haien asmoa

03. Informe de gestión (Diciembre).

Seguimos subiendo. Se están incorporando nuevos servicios y la empresa trabaja intentando ofrecer nuevas alternativas. La sala fitness, como siempre, con muy buenos datos, lo mismo que el rocódromo, tras el impulso realizado. Seguimos mejorando y adecuando la oferta según las necesidades de la ciudadanía. (Señor Bikandi).

El Señor Urkiza observa la subida en el número de federados.

El Señor Bikandi, lo consultará con el Señor Inza.

La Señora Abanzabalegi añade que ocurrió lo mismo con los datos de los abonos de verano y aún está sin aclarar.

El Señor Txertudi y la Señora Elkoroiribe indican que se envió un email con esto último.

¿Tras la vuelta al cole, cual es la situación de los cursos del rocódromo?. (Señora Abanzabalegi). El Señor Bikandi le explica que la empresa gestiona los cursos que habitualmente se ofrecen (Lanbide, Maristas, etc.). Regularmente se reúnen con las escuelas y su intención es darle un

2025-01-15

jarduerari bultzada bat ematea da. Harentzat, garrantzitsuen jarduera hori gorputz-hezkuntzako programetan txertatzea da. Ikastaroa amaitu eta egutegiak instalazioetara egokitu aurretik beraiekin biltzea da asmoa. Beste proposamen bat da batxilergoko ikasleei goizeko ordutegia eskaintzea, beste erabiltzaile batzuen asistentzia baxua aprobetxatuz.

Abanzabalegi andreak zalantzan jarri du enpresa esleipendunak ikastaroak proposatuko ote dituen (hasieran adierazi zen bezala), eta ez orain arte bezala, eskolak baitira ikastaroak proposatzen dituztenak, Bikandi jaunak Inza jaunarekin kontsultatzea erabaki du. Badaki enpresa aztertzen ari dela, SOAFen bidez, zerbitzua nola integratu. Gai honi buruzko txosten bat ere eskatuko die.

Kirol txartelaren datuei dagokienez, Urkiza jauna harrituta dago Berriz eta Astigarraga direlako gehien erabiltzen direnak. Komentatzen dute.

Batzordea jakinaren gainean dago.

04.59/2023/ID/KN kirol zerbitzuen kontratuaren luzapenaren onarpena.

Bikandi Jaunak kontratu baten luzapenean jarraitu beharreko urratsak zehazten ditu. Azaroaren 13an dokumentazioa Kontratazioan aurkeztu zutela azaldu du. Antza denez, ez zen izapidetu, eta, beraz, enpresari berariazko baimena eskatu zitzaion, eta onartu egin zuen. "Behar bezala" izapidetu ez denez, luzapena onartu edo ez bozkatu behar dugu.

impulso a la actividad. Para él, lo más importante es integrar dicha actividad en la programas de educación física. La intención es reunirse con ellos, antes de terminar el curso y adecuar sus calendarios a las instalaciones. Otra propuesta es ofrecer el horario de mañana a los estudiantes de bachiller, aprovechando la baja asistencia de otras personas usuarias,

Ante la duda de la Señora Abanzabalegi de si la empresa adjudicataria propondrá cursos (como se indicó en un principio) y no como hasta ahora, que son las escuelas quienes los proponen, el Señor Bikandi decide consultarlo con el Señor Inza. Sabe que la empresa está estudiando, a través del SOAF, cómo integrar el servicio. También les pedirá un informe sobre este asunto.

En relación a los datos de la Kirol txartela, al Señor Urkiza le sorprende que sean Berriz y Astigarraga los que más usos tienen. Lo comentan.

La Junta se da por enterada.

04. Aprobación de la prórroga del contrato de servicios deportivos 59/2023/ID/KN.

El Señor Bikandi detalla los pasos a seguir en la prórroga de un contrato. Explica que el 13 de noviembre presentaron en Contratación, la documentación. Al parecer, no se tramitó, por lo que se solicitó el consentimiento expreso a la empresa, que sí lo aceptó. Al no haberse tramitado 'correctamente', debemos votar, la aprobación o no, de la prórroga. Desde



2025-01-15

Interbentziotik adierazi diotenez, aurreabisurik ez dagoenez, ziurrenik eragozpena jarriko da. Oraindik ez da fiskalizatu, baina gastua aurreikusita dago aurrekontuetan. Egoera larria da, lege ezin baitugu atzera egin, bi aldeek aurrera egitea erabaki dutenean. Gaur onartzen ez bada, kontratazio-organoa Batzordea izanik, ezin izango da kontratua luzatu.

Elkoroiribe andreak gaineratzen du Palacio jaunak gaur arratsaldean bertan sinatu duela eragozpena eta, beraz, bihar goizean goiz, Bikandi Jaunak desadostasuna sinatu ahal izango duela. Osoko bilkura berezi eta presazkoa izango da, eta datorren ostiralerako, hilak 17, goizeko 8 eta erdietan egingo dugu. (Elkoroiribe andrea).

Urkiza jaunak ez du ulertzen, Batzordea kontratazio-organoa bada, zergatik onartu behar den Osoko Bilkuran. Elkoroiribe andreak adierazi dionez, kontu-hartzaileak alde zuzenetik kontsultatu du, eta hala izan behar du.

Bozketa egiten da, eta emaitza hau izan da:

Alde: EAJ-PNV (3).
DES-SVD (1).
PP (1).
Abstentzioak: EH Bildu Durango (3)
HE-ID (1).

Beraz, kontratu luzapena onartzen da.

Batzordea jakinaren gainean dago.

Intervención le han indicado que, al no haber un preaviso, probablemente se interpondrá un reparo. Aún no se ha fiscalizado, aunque el gasto ya está previsto en los presupuestos. La situación es grave, puesto que, legalmente, no podemos echarnos para atrás, cuando ambas partes han acordado seguir adelante. Si no se aprueba hoy, siendo la Junta el órgano de contratación, no se podrá prorrogar el contrato.

La Señora Elkoroiribe añade que esta misma tarde el Señor Palacio ha firmado el reparo por lo que mañana a primera hora, el Señor Bikandi podrá firmar la discrepancia. El Reparó se levantará en el Pleno extraordinario y urgente, que convocaremos para el próximo viernes 17 a las 8 y media de la mañana. (Señora Elkoroiribe).

El Señor Urkiza no entiende que, si la Junta es el Órgano de contratación, por qué debe aprobarse en el Pleno. Según le indica la Señora Elkoroiribe, el Interventor lo ha consultado previamente y debe ser así.

Se procede a su votación, con el siguiente resultado:

A favor: EAJ-PNV (3).
DES-SVD (1).
PP (1).
Abstenciones: EH Bildu-Durango (3).
HE-ID (1).

Por tanto, se aprueba la prórroga del contrato.

La Junta Rectora se da por enterada.

2025-01-15

5. Kontseilu Errektoreak onartutako Ohiko Bilkuren aldizkakotasuna aldatzeko proposamena: orokorrean, Kontseilu Errektorearen ohiko bilerak hilean behin izango dira, Udaleko Multimedia aretoan, asteazkenetan arratsaldeko 17:00etan eta beti ere, Udal Osoko Bilkuraren egunaren aurreko bi astetan.

Irizpide orokorra da, eta noizbait alda daiteke, egun batean edo bestean, baina beti deitu behar da, gehienez ere, osoko bilkura baino bi aste lehenago.

Bozketa egin da, eta emaitza hau izan da:

Aho batez onartu da.

Batzordea jakinaren gainean dago.

06. Interesesko gaien kontu ematea.

NIK Patrika digitala.

Txertudi jaunak DK txartela app horretan sartu dela jakinarazi du, egindako informazio-kanpainaren eta bidalitako e-mailen ondoren. Herritarrei eskaini beharreko zerbitzu bat gehiago.

Aplikazio horren erabilgarritasunak aipatu dituzte.

Ez Abanzabalegi eta Ruiz andreek, ez Urkiza jaunak, erabiltzaileak izanik, ez dute informaziorik jaso, eta uste dute pertsona asko egon daitezkeela egoera berean. Txertudi jaunak ohar egokia hartu du.

05. Propuesta de modificación del Acuerdo del Consejo Rector, referido a la periodicidad de las sesiones ordinarias: con carácter general, las reuniones ordinarias del Consejo Rector, tendrán lugar una vez al mes, los miércoles a las 17:00 horas, en la Sala Multimedia del Ayuntamiento y, en todo caso, durante las dos semanas anteriores al día del Pleno Municipal.

Es un criterio de carácter general que puede variar alguna vez, un día u otro, pero siempre debe convocarse, como mucho, dos semanas antes del Pleno.

Se procede a su votación, con el siguiente resultado:

Se aprueba por unanimidad.

La Junta Rectora se da por enterada.

06. Dación de cuentas de asuntos de interés.

NIK Patrika digitala.

El Señor Txertudi da cuenta de la incorporación de la tarjeta de DK a dicha app, tras la campaña de información realizada y los emails enviados. Un servicio más que ofrecer a la ciudadanía.

Comentan las utilidades de dicha aplicación.

Ni las Señoras Abanzabalegi y Ruiz, ni el Señor Urkiza, siendo personas usuarias, han recibido la información y entienden que puede haber muchas personas más, en la misma situación. El Señor Txertudi toma



2025-01-15

Batzordea jakinaren gainean dago.

07. Eskariak eta galderak.

✓ **2024ko langileen egutegiei buruz galdetzeak ez du zentzurik. Baina 2025ekoak gaititu Gabe jarraitzen dute.** (Urkiza jauna). Bikandi Jaunak erantzun dio egutegi batzuetan ez dagoela aldaketa esanguratsurik.

✓ **Zeini dagokionez? (Garrastatxu andrea).** 2024ko egutegiari dagokionez, Bikandi jaunak erantzun dio. **Oraindik ez dugu jaso 2024koa.** (Garrastatxu andrea).

✓ **Organigrama ere egiteke dago, eta horretarako kontratu bat sinatu zen, dagoeneko ordaindu dena. Ez dakigu ezer horretaz.** (Urkiza jauna). Arazoak ditugu lanpostuen esleipenarekin. Hor blokeatuta gaude. (Bikandi jauna).

Goazen lanak "ateratzen" eta behin-behinekoak kudeatzen. Guretzat ere beharra da, eta gure asmoa ahalik eta lasterren martxan jartzea da. (Txertudi jauna).

2024 egutegiak onartu gabe igaro da. 2025ean lanean ari zinetela esan zenuten, organigrama berriaren arabera. Oraindik ez dugu organigrama berria ikusi. Ez dakigu zein den organigrama, ezta 2025erako egutegia ere. Egutegiak zertan oinarrituta landu dituzue organigrama berririk ez badago. (Abanzabalegi andrea).

Txertudi jaunak erantzun dio bere asmoa organigraman planteatutakoa betetzea

debidatuta.

La Junta se da por enterada.

07. Ruegos y preguntas.

✓ **Preguntar por los calendarios de los trabajadores de 2024, ya no tiene sentido. Pero los de 2025 siguen sin aprobar.** (Señor Urkiza). El Señor Bikandi le responde que en algunos calendarios no hay cambios significativos.

✓ **¿Con respecto a cuál? (Señora Garrastatxu).** Con respecto al calendario de 2024, le responde el Señor Bikandi. **Aún no hemos recibido el de 2024.** (Señora Garrastatxu).

✓ **También está pendiente el Organigrama, para el cual se firmó un contrato que ya se ha pagado. No sabemos nada al respecto.** (Señor Urkiza). Tenemos problemas con la creación de los puestos de trabajo. Ahí estamos bloqueados. (Señor Bikandi).

Vamos 'sacando' los trabajos y gestionando eventualidades. Para nosotros también es una necesidad y nuestra intención es ponerlo en marcha lo antes posible. (Señor Txertudi).

2024 ha pasado sin aprobar los calendarios. Dijisteis que estabais trabajando en el de 2025, según el nuevo organigrama. Aún no hemos visto el nuevo organigrama. No sabemos cuál es el organigrama ni cuál el calendario para 2025. En base a qué habéis trabajado los calendarios si no hay nuevo organigrama. (Señora Abanzabalegi).

El Señor Txertudi le responde que su intención es cumplir lo planteado en el



2025-01-15

dela, eta behar bezala antolatzen dutenean, guztiak bere bidea jarraituko duela. Prozesuak espero baino denbora gehiago ematen diela onartzen du.

Garrastatxu andreak plangintzarik edo kronogramarik ba ote duten galdetu du. Txertudi jaunak konpromisoa hartzen du Batzarrean aurkezteko eta, ahal bada, lehenago bidaltzeko. Garrastatxu andreak hitza hartu dio.

Abanzabalegi andreak langileen egutegiei buruz galdetu du. Bikandi jaunak erantzun dio ez dagoela arazorik C1en eta C2ren artean, baina bai ofizialen eta peioen artean. Egonkortze-prozesuak ere ez du laguntzen. Bere ustez, ezarritako plazak ez dira behar bezala planteatu eta horrek erabat baldintzatzen gaitu. Adibide batzuk ematen ditu.

Egoerari buruz eztabaidatzen dute.

Urkiza jaunak uste du 2024an, gutxienez, egutegietako batzuk onar zitezkeela, eta ez dela halakorik egin, ezta mahai politiko sindikalean aurkeztu ere. Ez du ulertzen zergatik 2025ean ezin diren onartu, gutxienez, "arazorik" ez dutenak.

Bikandi jaunak adierazi du ez dela arazo teknikoa.

Garrastatxu andreak uste du norbaitek hartu behar duela egoera horren ardura.

organigrama y que en cuanto lo organicen debidamente, todo seguirá su curso. Reconoce que el proceso les está llevando más tiempo del esperado.

La Señora Garrastatxu pregunta si tienen planificación o cronograma. El Señor Txertudi se compromete a presentarlo en la Junta y si es posible antes, enviarlo. La Señora Garrastatxu le toma la palabra.

La Señora Abanzabalegi pregunta por los calendarios de los trabajadores. El Señor Bikandi le responde que no hay problemas entre con los C1 y C2, pero sí entre los de oficiales y peones. El proceso de estabilización tampoco ayuda. En su opinión, las plazas establecidas no se han planteado correctamente y esto nos condiciona totalmente. Da algunos ejemplos.

Discuten sobre la situación.

El Señor Urkiza considera que en 2024, por lo menos, se podrían haber aprobado algunos de los calendarios y tampoco se ha hecho, ni se ha presentado en la Mesa político sindical. No entiende por qué, en 2025, no pueden aprobarse, al menos, los que no tienen 'problema'.

El Señor Bikandi indica que no es un problema técnico.

La Señora Garrastatxu opina que alguien debe responsabilizarse de esta situación.







2025-01-15

✓ **Durangoko herritar batzuek beisbola egiteko toki bat eskatu zuten. Berririk? (García jauna).** Txertudi jauna haiekin bildu zen. Hasiera batean, erraza zirudien, baina oso ezaugarri zehatzak dituen instalazio bat behar dute, astean behin eta Bizkaia osoko pertsonekin, baina ez dugu halakorik.

Presidenteak amaiera eman dio batzarrari, eta nik, batzordeko idazkaria naizen honek, akta jaso eta egiaztatu egiten dut.

✓ **Respecto a la petición de algunos vecinos de Durango, de un lugar para poder practicar béisbol. ¿Alguna noticia?. (Señor García).** El Señor Txertudi se reunió con ellos. En principio parecía algo sencillo pero, necesitan una instalación de unas características muy concretas, un día a la semana y con personas de toda Bizkaia, con la que no contamos.

El Presidente da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta. De todo lo cual yo, como Secretaria de la Comisión, doy fe.

TXERTUDI GAZTELU, Iker 	ELKORDIRIBE ZENIKAONANDIA, Mireia 	PERUGORRIA GARCÍA, Asier 
URKIZA QUILEZ, Iker 	ABANZABALEGI ARETIO, Ane 	GARRASTATSU URBANEJA, Ima 
GONZÁLEZ SANTOS, Sheila 	VARELA DORRIDO, Jorge 	GARCÍA FERNÁNDEZ, Carlos David 